



BALLONTI-LAS CARRERAS HODIA BIKOIZTEKO PROIEKTUAREN OBREN ZUZENDARITZARI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3233

Erregulazio bateratua duen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Jose Carlos Gimeno Gimeno
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BBUPko teknikariek osatuko duten obra-zuzendaritzaren aginduetara, "Ballonti-Las Carreras hodia bikoizteko" obrak zuzendu, kontrolatu eta zaintzeko giza baliabideen eta baliabide materialen koadroa osatzen duen laguntza teknikoak. 2.- Bete beharreko premiak: Lanen irismenari dagokionez, egin beharreko lanek baliabide teknikoen gaitasuna gainditzen dute, eta, beraz, baliabide horiek kanpoan kontratatzekeo beharra ikusten dugu. Aipatutako lanak garatzeko beharra eta baliabide propioekin egiteko ezintasuna kontuan hartuta, Laguntza Tekniko hau kontratatzekeo beharra ondorioztatzen da. Horregatik guztiagatik justifikatzen da laguntza teknikoko kontratu bat lizitatzea. Haren helburua da giza baliabideak eta baliabide materialak hornitzea, Zuzendariordetza honetako teknikarien osagarri gisa, aipatutako lanak behar bezala kontrolatu ahal izateko, behar den eraginkortasun teknikoko baldintzekin. 3.-Loteetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kudeaketa egokiagoa da kontratu osoa gauzatzea loteetan banatu gabe, zerbitzuak hainbat lan aurreikusten baititu elkarri lotutako jarduerekin.
4.- CPV: - 71240000-2 Arkitektura-, ingeniari- eta plangintza-zerbitzuak. - 71247000-1 Eraikuntza-lana gainbegiratzea. - 71520000-9 Obrak gainbegiratzeko zerbitzuak.
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.-Izaera juridikoa ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEI EURO (653.280,00 €), BEZik GABE
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 653.280,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Unitate-prezioak	
4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 452,64-601,12 • 2026. urtea: 120.000,00 € • 2027. urtea: 223.500,00 € • 2028. urtea: 223.500,00 € • 2029. urtea: 86.280,00 €	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez	
8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: HOGETA HAMAHIRU (33) HILABETE.
2.-Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.-Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.-Berme-epea: Ez da aplikatu behar
5.-Kontratua betetzeko tokia: BALLONTI-LAS CARRERAS
6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko da gutxienez. (237.556,36 €)



G.-KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Enpresa-mailan azken bost (5) urteetan egindako lanen zerrenda, betiere plegu honetan lehiatzen direnekin zerikusia badute. Egindako zerbitzu nagusien erreferentzietatik, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa dagokion lotearen batez besteko urtekoaren % 50 edo handiagoa izatea eskatuko da.

Alderdi hori egiaztatzeko, urte anitzeko kontratuak modu uniformearen gauzatu direla ulertuko da kontratuak irauten duen bitartean, kontrakoa berariaz egiaztatu ezean. Bost urte baino gutxiagoko antzintasuna duten enpresen kaudimena egiaztatzeko, lan horiek egiteko esleituko dituzten teknikariek horrelako proiektuetan egiaztatzen duten esperientzia hartuko da kontuan.

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

- Kontratua gauzatzeko behar den kualifikazio akademiko eta profesionala duen talde teknikoa izatea, zehazki:

- Ingeniari tekniko bat, esperientzia > hamar urte
- Obrako teknikari bat, esperientzia > bost urte
- Topografia-ekipo bat: topografo bat, bost urtetik gorako esperientziarekin, eta laguntzaile bat.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-iritzien arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1) Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia:

Atal honetan, lizitatzailerak egin beharreko lanen memoria deskribatzailea zehaztuko du, laguntza honen xede diren kontratuetarako modu espezifikoan. Alderdi hauek nabarmenduko ditu bereziki:

Proiektuaren analisisa

Lizitatzailerak proiektuaren eta haren ezaugarri nagusien azterketa egingo du, agerian uzteko zenbateraino ezagutzen duen, eta proposatutako lan-metodologia garatzeko abiapuntu izango diren oinarriak justifikatzeko.

Lan- eta antolaketa-metodologia orokorra



BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Baldintza tekniko berezien plegua behar bezala exekutatzeko eta laguntza-taldea behar bezala antolatzeko jarraitzea proposatzen den metodologia zehaztuko da, azterketaren xede den obraren berezitasunetara egokituta.

Espazioaren muga dela-eta, metodologia orokorrak garatu beharreko lan nagusien laburpen argia eta zehatza izan beharko du.

Obran sartzen diren jarduketa nagusiak kontrolatzeko proposatzen diren prozedurak.

Lizitatzailleak obra-unitate garrantzitsuenen jarraipen eta kontrolerako proposatzen dituen berariazko prozedurak garatu beharko ditu, bideratuta dauden obren ezaugarrietara egokituta eta zehaztuta. Espazioa mugatua denez, prozedurek garatu beharreko lan nagusien laburpen argia eta zehatza izan beharko dute.

2) Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak.

Proposatzen den talde teknikoa eta zerbitzuaren egokitasuna.

Proposatutako talde teknikoaren osaera zehaztuko da, eta, profil bakoitzerako, lehiaketa honekin zerikusia duten arloei lotutako titulazioa, dedikazio-maila eta esperientzia profesionala zehaztuko dira.

Eranskin batean jasoko da profil bakoitzaren curriculum vitae-a, eta eskatutako gaian bakoitzak daukan esperientzia argi eta zehatz justifikatuko da.

Talde teknikoaren antolaketa

Lizitatzailleak ezarriko du obraren exekuzioa zuzentzeko eta kontrolatzeko taldearentzat aurreikusitako antolaketa, eta hura osatzen duten profiletako bakoitzari esleitutako harreman eta funtzioak zehaztuko ditu, aurreko atalean deskribatutako metodologiarekin eta prozedurekin bat etorritz.

Kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna

Obraren Exekuzioa Zuzentzeko eta Kontrolatzeko lanei esleitutako bitartekoez gain, lizitatzailleak kontratuaren esku jarritako bitartekoak eta azpiegitura teknikoak ezarriko ditu, baita horiek kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna ere. Lehen aipatutako dokumentazio teknikoaren edukiak kontratuaren xederako zehatza izan beharko du, eta gehienez 40 orrialde izango ditu, honako ezaugarri hauekin:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, aurkibidea 40 orrialde horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala eta kontrazala. Salbuespen gisa, DIN-A1 eta DIN-A3 orriak sartu ahal izango dira, aurkezteko formatu horiek eskatzen dituen dokumentaziorako.

Orrialdeen guztizko zenbaketaren ondoretarako, kontratura bideratutako bitarteko teknikoen atalean, ez da kontuan hartuko obrari esleitutako taldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, eta informazio hori eranskin batean erantsi beharko da, bereiz.

Aurreko baldintzak urratuz gero, eskaintzailearen balorazioa zehatu egingo da. Ezarritako mugak gainditzen dituen orrialde bakoitzeko eskaintza teknikoaren puntuazioan 0,05 puntu galduko dira.



BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

Zerrenda horretan, baldintza tekniko berezien pleguan zehaztutako unitateen unitate-prezioak sartu behar dira, bai eta lehiakideak aplikagarri gisa proposatzen dituen unitateenak ere. Hori guztia, baldintza tekniko berezien pleguko 9. apartatuan ezarritako baldintzen arabera.

- b) Kontratuaren aurrekontua.

Egindako lanen exekuzio-aurrekontua, prezio unitarioetan egindako lanen batura oinarri hartuta. Horien neurketa bat dator aurrekontu partzialei dagokien neurketarekin.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Menthaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoa (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{Bmax - (BM + Bmax) / 2} \times 2$$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

(Bmax - BM)

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

1.- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia: 25 PUNTU

- Proiektuaren analisia
- Lan- eta antolaketa-metodologia orokorra
- Obran sartzen diren jarduketak nagusiak kontrolatzeko proposatzen diren prozedurak

2.- Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak: 25 PUNTU

- Proposatzen den talde teknikoa eta zerbitzuaren egokitasuna
- Talde teknikoaren antolaketa
- Kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresa bakoitzaren plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran bizi diren langileen ehuneko handiena, eta, berdinketa egonez gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusioko langileen kopuru handiena nagusituko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillan emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 ale gutxiago dituenean.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 ale baino gutxiago dituenean.
- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da % 25 aletik gorako beherapena.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 aletan baino gehiagotan gaitzen duten eskaintzak badaude, batez besteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko erregimenean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerik hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.



L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatu behar

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak jarduteko edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio kontratu honi, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian. Ordezkari horrek eta adjudikaziodunaren agindupeko langileek ez dute inolako harreman juridikorik, lanekorik ezta bestelakorik izango partzuergoarekin kontratua indarrean dagoenean ezta kontratua bukatzean ere.